

UPV/EHURAKO EKIPAMENDU ZIENTIFIKOAREN ETA FUNTS BIBLIOGRAFIKOEN EROSKETA ETA BERRITZEA FINANTZATZEKO LAGUNTZEN DEIALDIA 2018

Akatsak zuzentzeko prozedura:

Ikerketa, Garapen eta Berrikuntza Batzordeak bere oiniritzia eman ondoren eta Gobernu Kontseiluaren 2018ko otsailaren 1eko onespenerekin, UPV/EHUko ekipamendu zientifikoaren eta funts bibliografikoaren erosketa eta berritzea finantzatzeko laguntzen 2018ko deialdia argitaratzea erabaki zuen.

Behin eskabideak aurkezteko epea bukatuta, Ikerketaren Arloko Errektoreordetzak eskaeren azterketari ekin dio deialdiak ezarritako irizpideekin bat datozeela egiaztatze asmoz:

- a) Ikerlari nagusi eta kideek baldintzak betetzen dituztela.
- b) Deialdian zehaztutako dokumentazio osoa helarazi izana.

Egiaztatze honen arabera,

ERABAKI DA, onartzen diren eta alderdiren bat zuzendu behar duten eskaeren behin-behineko zerrenda web atarian argitaratzea.

Eskatzaileek hamar egun balioduneko epea izango dute, **2018/ko martxoaren 22tik apirilaren 9ra arte**, aipatzen diren aldaketak egiteko. **Zuzenketak egiteko epea amaituta, akatsak zuzendu ez dituzten eskaerak baztertuko dira.**

Ikertzaile nagusiak egindako zuzenketak UPV/EHUko Ikerketako errektoreordeari zuzendu behar zaizkio eta honako erregistro hauetako batean aurkeztu: UPV/EHUko Erregistro Orokorrean (Leioan, Bizkaiko Campusean), campusetako erregistroetan edo ikastegietako erregistroetan. Era berean, eskaerak aurkeztu ahal izango dira urriaren 1eko 39/2015 Legeak, Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearenak, 16.4 artikuluan zehaztutako beste edozein bidetatik.

Leioan, 2018ko martxoaren 21ean.

IKERKETAKO DEIALDIEN ATALA
Ikerketaren Arloko Errektoreordetza